

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

308n. zenbakia

garagarrilla-abustua 2005

2005



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

ABIZENAK

Arzubieta: Bizkai'koa da.

Arrizko zubiak dagozen lekua esan gura dau.

Elorrio'n agertzen da 1575n. urtean Arzubialde lez.

Arraitz: Ulzama'n agertu zan eta andik Gipuzkoa'ra.

Arro-ta -aitz dira osokiak. Arroa mendi txikia da eta aitz ba-dakigu zer dan. Orduan aitzean amaitzen da mendixua da.

1690n. urtean agertu zan idatzita Gipuzkoan.

Arralde (Arraldi): Atxa argi dan aldea edo tokia.

Naparroa'n agiri da 1362n.urtean.

Arrana: Gamiz'en dago etxe bat izen au daukana. Izan leiteke arana'ren aldakuntza baiña ziurrago Arro- eta -ana toki-atziakia: mendixua.

Getariar bat agiri da abizen onegaz 1474n. urtean.

Arrate: Elorrioren. Bedia'n, Markiña'n eta abar agiri da baiña Lizartza'n dagoz Arrate-goiena ta -barrena.

Arri-lekura atea da. Elorrio 1528.

Arratia: Bizkai'ko aran eder baten izena da. Gipuzkoan eta Bizkai -osoan toki askotan dago.

Lopez Mendizabal'ek diñoan lez, barruti edo bedar-lekua da egokiena, baiña izan liteke arro edo mendi txiki asko (-ti) dagon lekua.

Segura'n daroa batek 1374n. urtean.

Arretxe: Arrizko etxea.

Getaria'n agertzen da 1474n. urtean.

Arregi: Euskalerririk geienean agertzen da, batez Gipuzkoa-inguruan.

Arria dagon egia edo arrizkoa dan aldapa esan gura dau. Olako tokian dagoan etxea.

1590n.urtean Balladolid'en idatzia.

Arrese: Bidania-inguruan agertzen da eta Otxandio'n dogu ezaguna.

Arretxe'ren aldakuntza dala dirudi.

Oñate'n daroa batek 1461n. urtean.

Arriaran: Ormaiztegi inguruan dau jaiotza.

Arrizko ibarra esan nai dau (Arana).

1384n.urtean daroa batek Segura'n.

Arribaltzaga: Argentina'n agertzen da eta arri baltzak dagozen tokia esan nai dau.

Arrigorriaga: Erria Bizkaia'n. An Jaun Zuria'ren gudaldi mitikoa eta odolez arriak gorri.

Arriak gorri dagozen lekuan esan nai dau.

Arruabarrena: Mendi-muño baten barrenean dagoana.

Gipuzkoan agertu zan eta gaur Bizkaian be ba-dago. Argentina'n be bai. Tolosa 1803n. urtean.

Askasibar: Angiozar'en, 1624.

Askak edo aritz antzeko landarak daukazan ibarra.

Askorbe: Aitz eta gorri, baiña au ez da margoa, utsa baiño: "Gose gorria ikusi dogu". Orduan: Aitz utsaren bean dagona.

1773n. urtean Gatzaga'n agertzen da.

Astaburuaga: Asa-sasia da eta aseta sasi-lekua. Olakoaren goian dagoan etxearen izena litzake au.

Gatzaga'n agertzen da 1603n. urtean.

Asteasu: Aseta sasi-lekua izanik, olako asko dagon lekua izango da -tsu atzizkiak agertzen dauan lez.

1531n. urtean Iruña'n daukagu.

Astobieta: Aste sarritan arte'ren ordezkua izaten da. Asto-bideta arteak dagozan lekura bideak dira.

1479n. urtean Segura'n.

Astobiza: Aiala-aldean dabil zabalena, baiña Berriatua'n be bai.

Astobi-sasitza obia edo lekua ba'da, -tza atzizkiak tokia ta ugaritasuna agertzen dauz.

1733n. urtean agertzen da idatzita Bilbao'n.

Astola: Aseta sasiak izan ezkerero, -ola atzizkoak ugaritasina adierazten dau. Sasi asko dagon lekua. Elorrio 1625.

Astondo(a): Toki izen au zabal dabil: Zeanuri'n etxea, Gorliz'en tokia...

Aste- artea ba'da, arte-ondoa esan gura dau, baiña aitzia izan ezkerero, atxaren ondoa...

Aramaiona'n 1808n. urtean.

“EUREN ZIURTASUNEN OPARI”

KERMELO ETXENAGUSIA K ESANA

Oraintsu argitaratu dauan eta “Euskera nire bizitzan” idazpuru daroan liburuan Karmelo Etxenagusia gotzain laguntzaille eta adiskideak esan dauzan berbak, ezin dodaz neure burutik alboratu: “Martin bere ziurtasunen Opari” da.

Nik esaldi au onelan aldatu ezkeru, egi aunditzak artuko neuke: “Martin eta bere lankideak euren ziurtasunen opari dira”. Eta ori neure lankideak aintzat artzeko.

NORTZUK GARAN OPARI

Euskerazaintza osotzen dogun guztiontzat balio dau esaldi orrek. Idazle ugariak eta batzuk oso onak gara.

Izen batzuk aitatzeokotan oneik gitxienez kontuan artu bear: Lino Akesolo, Santi Onaindia, KEREXETA, Puxana, Zubikarai, Latiegi, Atutxa, Amale eta neu.

ZIURTASUNAK ZEINTZUK

Guk artu dogun bide au artzeko zio sakonak euki genduan eta daukaguz. Bi dira oiñarri: Idazkerea eta irakaskintza.

Idazkeran daukagun ziurtasuna auxa da: Euskereak h'rik ez dauala bear eta ñ ta ll ez dirala kendu bear. Onetan euskaldun guztiok gagoz batera. Askok h'a onartu eben eta ezin dabe urratsik atzera emon. Baiña euskereak ez dauala h'rik bear argi dagon gauzea da.

Eta irakaskintzan ikastolara urreratzen diran umeak dakienetik asi bear dabela gero ez dakienera sartzeko. Au argi be argi agertzen dau Mendabalde' ren arduradun dan Juan Luis Goikoetxea k bere Maisu-Lan Nagusian. Labayru k be orretan ez dauka zalantzarik. Uste dot guztiak onartzeko bidea dala eta onartu nai ez dabenak irakaskintzakoak ez diran zioak daukez, batez be ez dabela ikasi Bizkai ko euskerea, Bizkai ko ikasleai ortik asi daitezcan laguntzeko.

OPARI GARA

“Opari” berba au, obeto ulertzeko erderazko “víctima” dala kontuan artu.

Bide orretara sartu garanok oso laguntza gitxi artzen dogu, beste bidea, h'aren eta batuaren bidea, bakarra dalako Euskaltzaindiarentzat eta Jaurlaritzarentzat. Egia esan, artzen doguz laguntza batzuk Foru-Aldunditik eta bbk'tik, naiz ta azkenengo onek eguneroko orritxua dauan egutegia argitaratzeko laguntza ukatu. Eskerrik asko

Gure aurkalariek Euskalerriko nagusiakaz bat eginda dagoz (Jaurlaritzagaz eta Aldundiakaz) eta gu geure ziurtasunen opari lez geratu gara.

Gugandik urrean dagoz batzuk, esaterako Labayru, Mendabalde, Lauaxeta ikastolea, Bizkai-Irratia eta abar, baiña oneik ez dagoz sendo gure ziurtasunik ziurrenean: h'aren aurka eta “dakigunetik ez dakigunera” ren alde.

ZER EGIN?

Gitxi eta baztertuak izan arren, gu jokabide baten leku koak gara eta bide onetatik jarraituko dogu al dogun artean. Zer lortuko dogun?

Gura geunkena beintzat, Bizkaiera ez galtzea da, ikas toletan irakastea lortzen ba'da. Ez da lorpen txikia!

Eta beste au: Egunen baten, uxala laster izango ba'litz, Euskalerrian au entzutea: “Euskerazaintzakoak errazoaia eukan”. Izan be orrelantxe da, errazoaia daukagu.

Gure aldetik ba, jarraitzeko gogoia bizi daukagu!

Eta euskaldunai eskari au egiten dautsegu: Gure jokabidea ulertu eta aintzat artu dagiela!

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA TXETXENI

KAUKASI izeneko lurralde luzea, ipar-sarkaldetik ego-sortaldera, EUROPA'ren eta ASI'ren muga egiñez, KASPIAR ITSASOA deritzan ludiko aintzirarik aundienaren eta ITXASO BELTZA'ren arteko "istmo" edo "lepo" zabal eta aski luzean aurkitzen da. Ortxe dago izen bereko mendi-katea ere: KAUKAS.

KAUKAS mendi-kate ori bera ere naiko luzea da: 1.280 kilometro; eta kilometro oien barruan EUROPA'ko mendirik garaienak gordetzen ditu: bat baiño geiago 5.000 metrotik gorakoak: eta danetan goikoena ELBRUZ izenekoa: 5.633 metrokoa. Auxe dugu, beraz, EUROPA'ko muturrik garaiena, naiz EUROPA'n bertan gure tontorrik garaiena ALPEE'etako MONT BLANC dala maiz esan. FRANTZI'n bait dago mendi ori, naiz mugamugan egon.

Eta jakiña da noski, ura beren errotara eramateko, frantziarren yoyotasuna.

Bigarren ludi-guduan iritxi ziran alemandarrak KAUKAS mendiraiño eta, ELBRUZ'en landatu zuten beren ikurriña. ¡Ez zuten asko pentsatzen azkenean eraman bearra zuten jipoi.

Ez zuten errusiarrek ere asko pentsatzen, askatasunaren billa jeiki zan TXETXENI txikiaren aurka gudara ain arto sartu ziranean, jaso bearrak zituzten buru-auste ta nekeak.

Okasio-lurra¹³ ta istillutegi urduria izan da beti Kaukaso izenenko mendi-kate ori, bere arantetan bizi diran 24 milloi gizasemeak kasta edo enda-sorta ugaritsukoak bait dira, eta elez ere izkera ugarikoak, Laterri ta Laterri ezberdiñetan bildurik.

Laterri oietako batzuk, yareak, ots, independienteak dira, ERRUSI'n komunismoa ezereztu zanez gero. Adibidez egoaldeko iru auk: ARMENI, AZERBEIYAN eta GEORGI. Besteak, iparraldekoak, danak oso txikiak, Errusi-pean diraute oraindik, bakoitza bere autonomia-rekin.

Azkeneko auen artekoa da TXETXENI. Txikia: gutxi gora-bera EUZKADI'ren neurrikoa 18 milla kilometro laukoi t' erdi bait ditu. Jendez aundiagoa da, 7 milloi biztanle. Auek, erlijioz ia danak musulmanak, 1936 lortu zuten STALIN'gandik autonomia.

Ez ziran pozik gelditu. Ta 1991'an DUDAIEV jeneralak, ERRUSI'ren aurka jeikita, TXETXENI'ko

ERREPUBLIKA YAREA eratu zuan.

Arrezkero ez da an pakerik izan.

1994'ean Errusi'ko gudarozteak TXETXENI'ko uri nagusia dan GROZNI'z jabetzea lortu zuan, eta baita an bere aldeko Jaurlaritz bat ipintzea ere. (Etoi, ots, traidoreak, lur-zoko guztietako landareak bai dira. ¿Ez al ditugu guk ere gure Euzkadi ontan bertan?)

GROZNI galduz gero, txetxeniarrak borrokan jarraitu zuten mendietan, DUDAIEF beren buruzagiaren esanera.

1996'ean il zan DUDAIEF jenerala.

Ezbear aundia txetxeniarrantzat. Baiñan ez ziran errenditu. Borrokan jarraitu zuten. Ta gaur ere borrokan jarraitzen dute. Basagudari edo gerrillarien erara mendietan; terroristen erara noizbeinka MOSKU'n bertan.

(Esan bearra dut TXETXENI'n errusiarrek egindako terrorkeriak ez dirala txikiagoak. Oroi dezagun, PUTIN gaur ERRUSI'ko Errepublika Federalkoien Lendakaria, len, komunismoakoan, G.P.U. zeritzan etzaindi komunistaren zuzendari nagusia izan zala.

Agian, irakurle, galde au egingo didazu:

Txetxeniarren gudu "aintzagarri" ortan ¿zenbat jende il ote da?

Barkatu, irakurle. Estadistikarik ez dugu-ta, erabateko erantzun ziur bat ematerik ez dutala, erantzungo dizut. Eta galde bat egin nere partetik. Ondoko au:

– ¿Guda ori ain "aintzagarria" iduritzen zaizu? Neretzat ez bait du aintzagarritasun aundirik.

Edozein eginkizunek, aintzagarri izateko, arrazoien argiari jarraituz egiña izan bear du. Baita Franko'ren terrorismo nazkagarriari erantzuteko emen, zoritxarrez, sortu zitzaigun ETA zoroak ere. (Odol-isurketaz "Euzkadi'tik begira" ari galararik, ez bait daiteke ETA aipatzeke gelditu).

Baiña ETA'ren eta txetxeniarren borroka zentzurik gabekoa eta arrazoi orenen aurkado borroka da. Ez bait daiteke iñolaz ere garaille gelditu.

Badago gaiñera bi borroka oien artean, ETA'renaren aurka, garrantzi aundiko beste zerbait. Ez dakigu Txetxeni'ko borrokalariek erria beren alde duten. Baietz dirudi. ETA'k, alderantziz, lau kattu marrakaegille izan ezik, bere aurka bait dauka euzkadi guzia.

ZUGATZ BAT SARTU DAUANARENA EZ DA
ALPERREKO BIZITZEA

DANTE

¹³ "Okasio" erderatiko itza dala badakit, baiñan beste esan-nai batekin. Gaztelaz eta frantzeraz "ocasión" "oportunidad" da, eta inglanderaz oportunidad ez eze "acontecimiento" ere bada. Euskeraz berriz, "borroka". Jakingarria litzaiguke, naiz jatorriz erbestekoak izan Euskera-baitan beste esan-nai bat artu duten itzen zerrenda.

EUROPA'ren ERKIDETASUNA (II)

Europa`ko batzangotasunaren edestia:

Europa`ko batzangotasunaren edestia antziñekoa da. Bata, berezkoa izan zana, eta bestea, orain ia 2.700 urte-tik onantza.

Askenekotik ona Europa, era askoko egipide bitartez batzangotu gura izan dabe, baiña danak gudako indarke-rien bidetik eta erritarrak kontuan euki gabe, ain-bat astakeri eginda.

1789`an Frantzia`ko iraultzatik asiko gara, berak edestia muga baten antzera marraztu egiten daualako, antziñetik etorten ziran batzangotasunaren ametsak kai-zar-erregetzaren maldaberagaz eta denbora barriko jakin-ekintzakaz.

Baiña aldaketa guztiak, erromatarren indarrezko ametskerien egipidean egin da, 325`an kaizar-Konstantino`k Kristau erlijioarentzat katolikotasuna aukeratuz gaiñera, ziñeskintzako arauetan ezarri ebalako.

Eta Europa`k, Erroma`tar ta Godo`en zalapartako ezereztasunagaz eta Mauritarren atzerakadan, nai-ta 8-9`n gizaldietan berezko erritarrak aukera aundiak euki, euren jabetasunezko eskutik jaun-erregetzak sortu ziralako, ezin izan dau menperatzailetasunaren egipideko ari-era ortatik urten, Grezia`ren jakintza aundian, Erromatarren legedian eta erlijioaren Katolikotasunean ezarrita geratu ziralako.

Argi dago, geiegian dagozela Erroma`tar legedia ta Konstantino`ren katolikotasunezko alderdikeriak menperatzaileak diralako, eta andik ona dana zatitu baiño ez daualako egin.

Europa`ren ondorengo edestia:

Kaizar-erregetzaren maldaberan eta 1.789`an Frantzia`ko iraultzaren ondorioz, Europa guztian indarkeriz, daukaguzan laterriak ipini ebazan Europa`ko erritar-Nortasunaren buru gaiñetik.

Eginkizun orreik ez eban besterik egin, bereztasunaren egia dana ostondu baiño, eta Europa`ko errietan laster asi ziran agertzen gizon/emakume abertzaleak, kon-turatu ziralako, giza-eskubideko arrazoiaren gaiñetik eginda egon zirala, legezko egipideok.

Euskaldunak, beti egon gara arduratuta Europa`ko erri artean sortzen ziran legeakaz, eta batez-be SABINO`k itzartu genduzanetik.

Orregaitik N.E.Γ`ekaz asiko gara (Nouvelles. Equi-pes. Internationales d`emokratiques d`inspiration chrè-

tieene. (D.C.), ortik aurrera andiagotu egiten diralako Euskaldunen artu-emonak Europa`ko barne-legeetan.

Zeaztasun oneik, Landaburu`tar Jabier`en (obras completas) liburutik artuta dagoz.

N.E.I :

Errien-arteko alderdi-kristauen leenengo batzarra Paris`en 1.925`an Abendu`ko 12-13`an egin eben. Eta bertan Alemania, Belgika, Polonia eta Frantzia`ko ordezkariak batu ziran. Artu eben erabagia: Errien arteko iraspenaren idazkaria aukeratzea, Paris`en kokatuta geratuko zana eta Bruselas`en egingo zan urrengo batzarra.

1926`an Loraila`ren 22-23`an, Bruselas`eko Batzarrean: Aleman`ak, Belga`k, Italia`rarak eta Frantza`k egon ziran. Eta aitzaki baten bategaz joan ez ziran ordezkariak: Polonia, Suiza`r, Lituania, Txekia eta Austria`rarak ziran.

Kristautasunezko Demokraziaren kideak, Fazizta eta komunisten eritziari aurre eginda, au esaten eben: "Demokrazia`ren egizko gogamenean, jendartearen ezberdintasuna eta belaur edo leiñu baten nagusitasuna ez dabezala on-artzen". Demokraziaren oiñarriak: "Ekanduzko edo oiturazko indarrean lankidetasuna, askatasunaren arau-bide onak, gizarteari lotsagizun osoa eukitea eta Kristautasunezko jendekuntzaren garaipe-nak" elburu diralako.

On artu zan beste burupide edo erabaki baten, auxe diño: "Laterrien arremantetan, bakeari dagokion begira Kristau demokrata alderdien ikuspegiko ulermena: Ekanduzko edo Oiturazko indarrak, politikazko jaurkintzak eta diru-banaketa arduraren arteko ondoriotik agertzen dan zuzentasunezko orekatasuna dala". Bertan egon ziran ordezkariak "Naziño`en Elkargoari" (Sociedad de Naciones) euren baietza emonda eta orokor erri bake-zale diran guztiei.

Eta azkeneko erabakian, kristau-demokratiko alderdi politikoak zer ziran zeatz azaldu eben: "Alderdien bil-tzea zala eta ez Nor-beretasuna". An egon ziran ordezkari-aren bitartez unetxo orretan, bere elburu edo asmoa ez zala Erritarteko bateratze-bat eraikitzea, alderdien artean jakin-arazian argibidetuta egoteko, oiturazko egitamu bat eraikitea zala, eta bide batez, bata-beste-aren agiriak aldatzeko.

ATUTXA`tar Paul

ERRI-GOGOAREN EKIMENA TA POLITIKA

Gure Euskalerria'ri buruzko iritzi, ustekizun, aburu ta abarrak zenbat izan diran esaterik ez da. Aleunka noski. Joan dan gizalditik, batez ere, etnologari ta izkuntzalariak ezezik, folklore-zaleak ere, gure Erria'ren leenaldi odeitsua, ots, sorrera, irudimenak eman oi duan indar-egoz, zirrikituetatik, erraiñutxo, alderapenez edo-ta aztamuka bederik argitu naiean aritu zaizkigu.

Aidetasun-izpirik ez diote iñungo erriekin aurkitu, jakintsuki beintzat. Ez du beraz, gure Erria'k ez auzoko eta ez iñuundiko erriekin kidetasunik. Euskerarekin beste ainbeste, ez aidetasunik, ez iztar-senidetasunik gaur munduan itzegiten dan edonungo izkuntzarekin ez-eta galdutzat jotzen ditugunekin.

Onatx ba, amaika aldiz entzunik dugun esaria: izkuntzen itsasandi ontan bakartia dugu Euskalerria; euskera kiderik eta loturarik gabekoa. Erri ta izkuntza erabat ugarte.

Politikak ordea, ertietan aldakorrena, mugon-zaleena, kasuistenak, ez du bere esparruan "egipenak" besterik'ametitzen, "**burutuak**" baizik ontzat ematen bere arlo ta joko-barrutian. Suntsipenak, triskantzak, zuzenkontrakoak eta onelako itsuskeri guztien estaltzaille dan diplomaziako itzleun edo lots-izkeraz joka oi digu politikak. Ta politikazko erti mugikor oni begira eratu zaizkigu Europa'n laterriak. Lutamuak ordea (mapa politikuak, alegia) ezin esan daiteke beren margoetan azkena erabaki dutenik Erriak mugarrizten.

Laterriak sortzen asi ziranetik urteak alkarren gainka etorri dira. Alabaiñan, politikak ba'du aski lan oraindik. Gaur bertan, Europa bateratuago, alkartuago bat eratzen ari geran une onetantxe ondo dakigu ba'dabillela Estadumaila lortu ez dutenen Errien auzia. Onek zera esan nai du: laterrien egonkortasun edo tinkapena, ontzia itsabaga tarteko itxuraz zirkun-zarkun ari dala, kilikolo alegia. Eta Europa, geroari begira ez dagoala nai bezelako oreka tinkoan erabat eraikitzeke eran jarria, ez bait-dakigu biarko batean zertara elduko geran politikarekiko basarte trinkotatsuan.

Ez noa mapetako ola-olako estadu-mugalerroak aldatu bearrik ba'dagoala esatera. Bai baiñan au aldarrikatze-ra: kulturaz, idealez eta odol-alkartez tajutu ta moldatutako errien egintza, dinamikua da, bizia; ez garaipenak eta azpiraketak, ez interesak eta lapurretak aldatu ezin izango dutena. Jainko altsuak nazioak markatu nai izan duanaren ezaugarria ez bai-da erabat errex ezabakor.

Erriaren gogoa eta naia oztopatzea ta zearo ezabatu ta erauztea oso zailla izaten da. Izan ere, pertsonak zenbaterañoko aalmena duan jakiterik ez dago. Pertsona batek,

orrelako aalmena agertzen baldin ba'du, gauza bera esan daiteke giza-talde bati dagokionean.

Erri bat, dan bitartean, gogo-biotzetan erri-atsak dirakian bitartean, beregan darama Jainko orrek pertsona naturalari (taldekako naiz norbanakoari) esleitu dion askatasunaren eskubidea.

Politikarekiko nortasunaren illunaldiak (azpiraketan eragiñez-eta) gizalditan kontatuak izanik ere, ez dute aurkakorik ezer adierazten, eskubide ori iraun-legez gal-erazten eta aienerazten.

Erri edo nazio onek, pipiak jandako zura antzera dagoala irudituarren, laterri artifizialari noizpait, alako batean gain artuko dio, azken txanpan sortzezko askatasuna dagokionez lortzeko. Erriaren ekimenak ez bait-du mugarik. Onelaxe gerta oi da zenbait kasutan, politikazko eriotz luzez zapaldu ta ustez eortzitako zenbait erriekin Europa'n bertan.

"**Emen erri bat izan zan**" ezpataz xilkatu oi digu maiz konkistatzaileak zapaldua izan danaren illobi-arlo-san; ots, pikutara joana zaigu erri au. Beste ainbestetan ordea, sustraitxo arrigarri batzuk ain basakiro lurperatutako gorputzean bizigarrizko izardia arturik, tartetxo ta zirrikitua billatuz, arria digute arraildu, pitzatu ta zapartegin; ta errotxoak azalera nekez elduz, lore ta ostoztandada aintzatsuz nazio pizkundearen goratzarrea abestu digute.

Ez al da au gertatu Euskalerria'n? Begira bestela 1839'gn. urtera eta 1876'ra. Eta azkenik, nola ez ba, 1936'gn. urteari. Politika-legez zapaldua, eortzia, ixilerazia zetzan Euskalerria.

Lenin'en izenean sarraskitzen zutenak eta 36'ean Jainkoa'ri iltzeko txapelgorriz eta eskuplaioz jantzita oles egiten ziotenak ikusia dute, bai arranopola! ikusasmorik etzutena.

Euskalerria berriro politikan ugarte biurtu zaigu, inguratzen duten naasketatik, odolez, loi ta malkozko itsasotik irtena, zutitua.

EGAÑA'tar Gotzon'ek

ZUGATZ BAT SARTU
DAUNARENA EZ DA
ALPERREKO BIZITZEA.

DANTE

ARANTZADUNAK

Udako egun bero baten, mundu asko ikusitako gizon bat Auñamendi'ko artzain bategaz berbetan egoan eta biok ezagutzen ebezan landarak ebezan autu-gai.

Batek auxe esan eban:

– Nik Madagaskar'en izugarritzko arantzaz estalduta egoan zugatz batzuk ikusi nebazan, “didierak”. Onein arantzak gramfonoaren orratz lez erabilten ebezan, ain ziran gogorak! Ugarte beratan egoaldean indibaba-ondo aundi bat egoan eta au ikutu ezker azkura aundia sortzen zan.

Besteak auxe gaiñeratu eban:

– Gure eremuetako sasiak eta otak be ba-daukez olako gezi eta eztenak .Batzuk azkurea emoten dabe eta beste batzuk asuna baiño mingarriagoak dira. Asuna bera be udabarrian izaten da mingarriagoa. Baiña izadiak jakitsu jokutzen dau. Erre-miña dakarren asunaren alboan, geienetan zan-bedarra ipinten da osatzeko eta onen orri batek kentzen dau aren erre-miña. Ainbeste landara erremingarri ezagutzen doguzan ezker, esan egistazu, zertarako dauz izadiak ainbeste izkillu?

Euren buruak babesteko,- esan eutson besteak.. Orretan ez izan zalantzarik.Iñok ikutu edo jan nai ba'dauz, pentsau dagiala zer egitera doan.. Larrosak eurak be au esaten dabe:”Begira!Basamortuko landarak be euren buruak gezi ta azkonez estaltzen dabez, izerditu ez daitezzen eta bizidunak jan ez dagiezan. Bidez doanari oi u egiten dautsoe:”Urreratzen ba'az, ziztatu egingo aut”.

Besteak:

– Baiña ganbeluak jaten dabez indi-ikoaren aleak.Astoarentzat be janari gozoa dira. gardu-latzak. Eta astoa ez da ago-zuria. Txoritxuak larreetan egiten dau abia,mikea elorrira joaten da ezkutuan jateko,kanari-txoriak nasai jaten dauz azunak.

– Egia diñozu. Baiña eztenak babesteko ez ba'dira , xomorroak euren buruak etsaiengandik babestuteko, zergaitik alegintzen dira larrosa-arantzearen itxurea artzen? Eta artu be artzen dabe.

– Olantxe da ori. Begira, or oiñetan daukazun mordosko lodi orreri Mallorca'n “lumatxatxu” esaten dautsoe. Eztenez egindako pelota bat da. Arritu zaitez gure kardulatz urdiña edo “txorien ardautegia” esaten dautsen mota kontuan artuta.Beste izen bat be ba-dauko landara orrek: Kardulatz karlostarra. V Karlos'egandik datorko izen ori, gaiso-aldi baten, ainbeste erail ondoren, landara onek osatu ebalako bere gudari-talde osoa. Ez da ona ardautegietarako,baiña bai aletegietarako. Esan begiez olakoak landarak maite dabezan beste askok.. Baiña goazen arin-arin etxera , kardulatz itxiten asi da eta orrek ba-daki laster euria datorrela.

Eta azkenez, artzain zarrak esan eban:”Auxe dogu mendian giroa igarteko biderik onena. Landara arantzadunak be laguntzaille doguz.

OLAZAR'tar Martin'ek



ZUGATZAK DOANGO LANGILLERIK ONENEK
DIRA:

GIZONEN ALDE GAU TA EGUN LANEAN
DIARDUE:

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

“EUSKALDUNAREN ANEKDOTAK” (Juan Luis Goikoetxea´ren liburu barria)

BIZKAIERAZ.

“Deia” gure egukarian irakurri dogu poz aundia emon dauskun barri edo albiste bat: Gure Juan Luis Goikoetxea´k liburu barri bat argitaratu dauskula “Euskaldunaren anekdotak” idazpuru dauala. Eta nire poza ez da ainbeste liburu barria dalako, Bizkaieraz idatzia dalako baiñio.

Juan Luis´ek oraingoan artu dauan gaia erri-errikoa da eta ondo aukeratu dau gai ori agertzeko erriak darabilen euskerea, naizta H´a sartu gaurko Euskaltzaindiaren arauai jarraituz. Gitxi dira bizkaieraz agertzen diran liburak eta poztutekoa da olako bat agertzea.

MENDEBALDE TA JUAN LUIS

Juan Luis, Mendebalde taldearen sortzailletariko dogu eta zuzendari be izan da, naizta gaur beste bat, Ezti Izagirre, izan zuzendaria.

Euskal Pedagogian dotoretza egin eban eta Maisulanaren gaia oso interesgarria da, euskera osoa ikastoletan zelan irakatsi agertzen daualako, dakigunetik ez dakigunera ikur-esaldiaren gidaripean. Lan orretan darabilen euskerea ez jat atsegin, baiña gaia bai. Juan Luis´ek etxean ikasi eban euskerea Bizkai´koa, Mungia´koa, izan zan eta oso ondo darabil, batez be liburu barri onetan.

LIBURU BARRIA

Bizkai Irratian azaldu dauzan euskal-jazokizun batzuk eta gaiñeratu dauzan beste batzuk dira liburuaren gaia eta ekiñaldi ori goizean izaten zan lez, barretxua sortu eta eguna ondo asteko gatz apur bat dauke kontakizun guztiak.

Or agertzen dan Euskalerrria lengoa ei da, baiña gaur be olako giroak bizirik dagoz

Atsegiñez irakurteko liburu dogu ba, Juan Luis´ena.

EUSKALKIEN ALDE

Irakurri dogun albiste onetan Juan Luis euskalkien alde agertzen jaku.

Egia da gaur idazle guztiak agertzen dirala euskalkien eta bizkaierearen alde, baiña nik ez dauset sinisten. Juan

Luis´eri bai, oneri sinisten dautsak, onek bai egingo dau bizkaierearen alde lan.

Batua eta bizkaiera biak erabilli bear dirala, biak bizi bear dirala diño eta ori adierazteko bardinketa polit bat dakar, tren biren bardinketa. Batua ta euskalkia alkarren parean doazen tren biren antzekoak ei dira, biak ibillian doaz, eta piezak alkarrari emon be egiten dautsoez, baiña zori txarrez noiz batua eta noiz euskalkia erabilli bear dan erabagi bear danean zalantzak etorten ei dira. Ortik aske gagoz baturik iñoz be erabilten ez dogunok: Geure euskalkia argi ta garbi eta beste lurralde baten gagozanean bertakoa. al ba da.

BIZKAIEREAREN LAGUNTZAILLEAK


DEIA´n agertzen dan alkar-izketa luze orretan bizkaierearen laguntzailleak aitatzen dauz, Labayru, Bizkai-Irratia eta beste batzuk dirala diño.

Poztuko giñan “beste batzuk” orrein arteko izen batzuk azaldu ba´ebazan, esaterako: Lauaxeta Ikastolea eta Ibaizabal Argitaletxea eta beste ikastola batzuk, Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia, eta Bilbao´n euskerea irakasten eta zabaltzen 40 urte daroazan Euskerazaleak Alkartea.

Bizkaierearen alde gagozan arakunde guztiak ondo alkartuta jokatu bear dogu . Gure euskalki ederra galtzeko arriskuan dago, ez ikastoletan, ez EITB´n, ez liburuetan agertzen ez dalako, eta galtze orregaz iñork ez leuke irabaziko, euskereak eta Euskalerrriak eta mundu osoak asko galduko leuke.

Zoriona ba, Juan Luis adiskide, eta eskerrik asko. Zure liburu gure eskuetara eltzen danean egingo dogu, bear ba´da, beste ekiñaldi bat.

OLAZAR´tar Martin´ek



SALMOAK

75N. SALMOA JAUNA KURUTZEAN IL ZAN

1

Aitagandikan atera eta
zan mundura biurtua,
il da piztuta artu bearra
Aitagan zeukan lekua.
Jaunak begiak gora jasota
entzun zan oi u altua:
“Aita, zure eskuetan jartzen
det nere espiritua”.

2

Ondorenean espiritua
emana zion Aitari,
zerbait jiratzen eta makurtzen
laga zion buruari.
Itzen indarrak uxatu zien
andik diabru danari,
Luzifer ta danak jartzeraiño
pegatuak kabernari.

3

Ama Birjiñak misterioak
geiena ententiduta,
baita Jesusen eriotzako
miñ gogorak sentituta.
Ama etzan il Jaunak milagro
bizitzea berrituta,
martiri danak baiño geiago
bakarrikan suprituta.

4

Salbatzaillea gurutzetuta
illa zeguan orduan,
Ama Birjiña gurutzearen
kontra zutikan zeguan.
“Nola jetxi ta nork obiratu?
beregana pentsatzen zuan,
aingeruari eskatu zien
zer zan Jaunaren goguan.

5

Aingeru santuk erantzun zien:
“Andre Erregin gurea,
Jainkoak dauken legea.
Iltzen diranak permiso gabe
ez dago libre jeixtea,
ta maitasunez daukan odola
nai du dana ixurtzea.

6

Eldu ziraden kalbariora
jende armatutakuak,
auek ziraden Ama Birjiñak
miñez ikusitakuak:
nola bi lapur bizirik zeuden,
jarririk anak lertuak,
Jesusi lantza sartua zion
Lonjinos izenekuak.

7

Seme illari lantza sartzea
Amak, oso sentitua,
esana zion Lonjinos oni
au zan armadun gaiztua:
“Jauna zurekin izan dedilla
begira errukitua,
jarri didazulako anima
neurri gabe penatua”.

8

Gertatua zan, Lonjinos onek
lantza sartu zionean,
odol santuak saltatu zion
arpegira zuzenean.
Erdi itxua zegoan eta
jarri zan bista onean,
negarrez nor zan ezagututa
zabaldu zuan danean.

76N. SALMOA JAUNA KURUTZETIK JATZIA

I

Arratsaldea aurreratuta
Ama jarri zan penetan,
bi gizoneri Jaunak gogua
jarri zien biotzetan
Jesus jetxi ta obiratzeko;
maite zioten benetan,
Arimateako Jose eta
Nikodemus izenetan.

2

Ama Birjiñak eskatu zion
otoitz egiñaz Aitari:
seme Jainkoa obiratzeko
lagun deiela Amari.
Ikusi zuan gizon-kuadrilla
urreratutuz berari;
bildurturikan galdetu zion
“Nor dira? Joan onari.

3

Jose ta Nikodemus jarririk
auspez Birjiñan oiñetan,
itzikan ezin esan zuela
danak negarrez benetan,
Birjiñak jeiki zitun lurretik
eta indartu neketan.
Saludatuaz zerbait alaitu
zien Amari penetan.

4

Ama Birjiñak esana zien
gizon aueri orduan:
“Osekio au egitearren
zuen Jaunari munduan,
nik eskeintzen dizuet saria”.
Ta Josek erantzun zuan:
“Alako poza degu barruan
guk merezi ez genduan.

5

Berriro esan zion Amari:
 “Zuaz guk jetxi artean”.
 Erantzun zien: “Nere maiteak
 ementxe nitzan jostean.
 Ontzat artu au: nik ikustea”.
 Konformatu entzutean.
 koroia kendu ta agertu zan
 burua zuloz betean.

6

Salbatzaillean gorputz il ura
 Amak besotan artuta,
 ikusi zuan ederrena zan
 Jauna ain itxusituta.
 Bere biotzak izan zituan
 poz eta miñak batuta
 malko odolezkoak ixuri
 zituan adoratuta.

7

Arratsaldea zijuanean
 bere martxan illuntzeko,
 Joanek eta Josek eskatu
 baimena enterratzeko.
 Untatu zuen usai gozoz ta
 maindirea zan biltzeko,
 Amak eskatu aingeruari
 zerutikan etortzeko.

8

Birjiñak eman zien baimeni
 semea enterratzeko,
 anda batean ipiñi zuen
 eskutan eramateko.
 Zerutik jetxi ziran taldeak
 Amarekin jarraitzeko,
 Joan ta Jose, Nikodemus ta
 Mariari laguntzeko.

77N. SALMOA
JAUNA IL-OBIRATUA

1

Eraman zuen prozesioan
 gizonak aingeruakin
 gorputz santua obiratzera,
 ixilikan malkuakin.
 Urrean zeuken baratza bat zan
 obi-leku berriakin,
 Josek beretzat preparatua
 arkaitzean egiñakin.

2

Illundu zan da Birjiña jun zan
 Zenakulora etxera,
 entiaruan ziran guztiak
 lagundu zien onera,
 Joan santua eta Mariak
 berekin an gelditzera,
 ta beste danak pozez beterik
 eldu zan despeditzera.

3

Judutarrak bildurrez jun ziran
 Pilatosi eskatzera:
 “Biraldu zazu jende-taldea
 leku ori gordetzera”.
 Eun militar baimenarekin
 etorri ziran zaitzera,
 seillatu zuen, iñor etzedin
 etorri arrapatzera.

4

Agindu zien penan ordaiña
 Jaun Jesusen izenean,
 eskeintzen zala berentzat lagun
 ta serbitzeko mendean.
 Ezagutu zuen fabore au
 bedeinkatu zienean,
 jateko eta deskantsatzeko
 esan zien azkenean.

5

Eskatu zion bere baimena
 Amak erretiratzeko,
 baita andreaki bear zuena
 kanpotikan ekartzeko.
 Piztu artean barau egin nai
 zuenari lagatzeko.
 Joan izan zan Amaren itzak
 esanaz danak poztzeko.

6

Atera zan Joan zeuden etxetik
 San Pedro billatu zuan,
 negarrez eta oso bildurrez
 Erregiñana zijuan.
 Joanek Amak esan ziona
 Pedrori esan onduan,
 biak bestian billa jun ziran
 ta danak bildu zituan.

7

Lenengo sartu Pedro bakarrik
 Ama Birjiñan aurrera,
 damuturikan bere oiñetan
 auspertua zan lurrera:
 “Nik ofenditu zaitut Andrea,
 Maixuarekin batera”.
 Ezin itz egin zuan geiago
 lerturikan negarrera.

8

Aita Santua izango zala
 Birjiñak ezagututa,
 Belaunikatu zan Birjiña're
 tapaturik pekatua:
 “Eska deiogun Seme Jaunari
 izateko barkatua”.
 Jesusen errukiak esanaz
 jarri zuan indartua.

ALDALUR'tar JUSTIÑE
(KLARATARRA)
GASTEIZ

SORTALDEKO ERREIÑU GUDAZALEAK

Bibliak diñoanez, atsegin-baratza eta bertan gizakien sorlekua, Tigris eta Eufrates ibaien bitarte jorian egoan. Orrelan izan naiz ez izan, esan daikegun toki arek daukazala gizadiaren sorleku izateko ezaugarriarik argienak eta ara batzen zirala, egualdi epelaren billa, ipar, ego naiz sortaldeko giza-aldrak, lenago ibiltari edo nomadak izandakoak.

Antxe jaso ebezan etxeak, lurak landu, eta euriak sortu eta andik zabaldu dira ederti, jakintza, jaurbide eta erlijioerik ezagunenak.

Eta lurrari frutua ugariago emon eragiteko, erretenak ebagi ebezan eta ura ugariago zabaldu, ureztatzeak gertatuta.

Arria urri eukelako, ibai-ertzeko buztina artu eben etxegintzarako zoiak egiteko.

Baiña ez zan dana erlauntz burrundaratsua beti uri barruan, ateak idegi be egiten ziran arresietan, merkatarilara luzeak inguruko errietara zabaltzeko. Antxe asi zan gizakia salerosketarako bitarteko lez dirua asmau eta erabilten.

Laster konturatu ziran gbizakien sendia ugaritzen joiala eta jainkoekana urreratzea otu jaken, eguzkia eta ibai aundiak artu ebezan jainkotzat eta jainko asmatu barri orren ederra lortzeko nonai egiten ebezan euren

irudi aundiak eta eleiza arrigarriak eta esku-erakutsiak eroaten ebezan eleizetara.

Eleiz-lanetarako abadeak be aukeratu ebezan eta oneik erriaren aurrean itzal aundiko gizon biurtu ziran. Izan be ikastunak ziran eta gorabeera guztiak arakutzen ebezan. Trebeak ziran, batez be, izardia arakutzen eta zeregin orretan beste edozein erritar baiño jantziagoak ziran.

Izkiak edo letrak be or asmatu ziran, asmatu eta zoietan idatzi, eta batzutan zi edo kuñen bidez, bate batzutan irudi txikien bidez, euren buruan egoana betirako agertuta izteko bidea sortu eben.

Erritarrai eskola au irakastea, abadeen zeregiña zan.

Baiña beste burutasun sakon bat be sartu zan erri areitara, guda egiteko asmoa.

Uri bakoitzak bere gudariak bialtzen ebazan auzoko uria zapaltzeko eta orrelan buruzagi garaillea uri menperatuen buru biurtzen zan.

Orrelan sortu ziran lengo uri koskorren orde, erreñu barriak eta agiterri atsuak.

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua

MARKINA'KO AGINAGA'TAR MIREN KASILDE'REN ABIZENAK

Aginaga: Agiña deritxon zugatza dagon lekua.

Ubarteburu: Ur-artean dagon etxea (Ugarte) baiño gorago dagon etxea.

Unamuno: Abereentzat bedarra dagon landea.

Garate: Mendi-gaiñeko atean (portuan) dagoana.

Espilla: Etxearen ondoko landea.

Gisasola: Gisats edo giñarra asko dagon lekua.

Gisasola: Gisats edo giñarrea, ola asko dagoana.

Zelaieta: Leun-une asko dagon lurraldea.

Barinagarrementeria: Atxaren ondoan, burdinlanabesak egiteko sutegia.

Arakistain: Okaran-soloaren gaiñean dagon etxea.

Laka: Erreka bi alkartzen diran lekuan dagon etxea.

Urki: Urki edo abedul asko dagon lekua (Urkiola).

Larrea: Abereak bedarra jateko zelaia edo landea.

Basterretxea: Landa baten egalean dagon etxea.

Barrenetxea: Auzo baten barrenean dagon etxea.

Ondartza: are edo ondar asko dagon lekua.

AZKENENGO ARRAIÑA JATEN
DOZUNEAN, AZKENENGO
LANDAREA IGARTZEN DANEAN,
ORDUAN, BAI, ORDUAN JAKINGO
DOZU DIRUA EZ DALA JATEN.

Ameritako indarren esaldia

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

KALE IZENDEGIA (BAKIO) 2.

BIRJILANDAKO BIDEA: *Birjilandako bidea* (1944) izena da aspalditik bide orretarako erabiltzen izan dogun izena, agoz eta idatziz be.

BISTALAIKO oinbidea: *Bistalai* etxearen erreferentzia 1911. urtean agertu da leenengoz, jaubea Aniceto Uriarte izan zan orduan. *Bistalai* ondoko errekaldean dagoan oinezko bideari izena emoteko aukeratu dogu berau. *Bistalai* eta *Bistalaitxu* (1940) etxeak *Urzabal* izeneko paduran eginda egozan.

BUZTINDI kalea: Kale au *Buztindi* (1910) izeneko basoan egingo da. Basoa, alderdi baten, soloa be izan zan. *Minitua*, *Minituatze* eta *Besondona* (1641) aldeetxeetakoa izan zan. *San Pelaio* izeneko auzoan dogu au.

ELEXALDEKO BIDEA: *Elexalde* (1858) izeneko aldeetxea, erri etxea, erriko *Andra Mari* (1662) eleizearen ondoan egoan. Aren ondoan egon ziran be *Abadiena* (1944) eta *Ospital* (1862) izenekoak. Iru etxeok eleizeagaz *Elexalde* izeneko ingurua egiten eben eta ortik zabaldu zan izena auzo osoari, *Elexalde* auzoa. Ara joateko bidea, bada, *Elexaldeko bidea* 1903. urtean egin zan.

ELEXALDEKO plazea: Aitaturtako iru etxeak (*Elexalde*, *Abadiena* eta *Ospital*), orain dala urte asko ez dala, eratsi ziran gaurko plazatxua egiteko. Plazatxua non?, eta *Elexalde* deritxon inguruan, ortik, bada, aukeratutako izena.

ERDIKOBENTA kalea: Leenengo-leenengo *Benta* edo *Bentazar* izeneko etxea egon zan inguru aretan. Geroago baten, *Bentabarri* edo *Altamira* eritxon etxea egin zan. Eta osteango baten, *Erdikobenta* izeneko, *Bentazar* eta *Bentabarri* bion artean, egin be. *Erdikobenta* izena bada erabili dogu kale au izentetako.

ERREKAONDO kalea: *Errekaondo* (1910) eta *Sallaluzea* (1809) soloen ganean dago eginda *Villa Concha* (1922) izeneko etxea. Solook *Zubieta* (1641) aldeetxeetakoak ziran. Alan bada, beste leku-izen batzuen artean kale orren paraje-paraje dagoan au aukeratu dogu.

ERREMENTERIA kalea: *Errementeria* (1745) izeneko aldeetxea galdu zan orain dala 50 urte inguru, *Makuena* (1890) izenagaz be ezaguna izan da errian. Kalea dagoan inguru aretan egoan *Errementeria*, gaur egun, *Makuenabarri* dalako etxea dagoan lekuan, atan be. Kaleari izen ori imini deutsogu a etxea gomutauarren.

ERRENTERIAKO bidea: *Erreteria* (1422) aldeetxera joateko bidea izan zan *Errenteriako bidea* (1953) izeneko, erreka nagusitik asita.

ERROTABARRIAURRE kalea: *Errotaurre* (1910) edo *Etxeurrekosolo* (1926) da lur saila orren izena, *Errotabarri* (1876) errotearena atan be. Ortik bada, kale orren izena: *Errotabarriaurre*.

ESPARRUA kalea: *Esparrua* (1922) izeneko soloa *Portuondobarri* (1881) etxekoa izan zan. Bertan egin ziran *Ainhua* eta *Esparrua* diralako etxeak. *Esparrua* kalea be bertan lur saila aretan eginda dago.

ETXEBARRIALDE kalea: *Etxebarrialde* (1910) lur saila etxe askotako saila andi luzea da, *Etxebarrialde* (1796), *Beitia*, *Gorrondona*, *Artetxe* eta *Pozuaga* (1901) aldeetxeetakoa, izan be. Egoki eritxi izan deutsogu, bada, kale orreri solo orren izena iminteari, ber-bertan dagoalako egoan.

GOIENKALE: Kale luzea izan eta kale orren ibilbidean leku-izen asko egonda, euskal kale izendegi istorikoa erabiltea ebatzi dogu. Bakioko urigunean *Zarragako erreka* (1882) eta *Albobi-de* dalakoaren artean lotuko da kale ori, *Zubiaurrealde* alderdian eta areantxu baten *Urkizaurrealde* auzoan be. *Basigoko bide*

nagusiaren eskoiko alderdian lotuko da. Ortik bada, daukan izena.

AREATZAKO etorbidea: *San Peleio*ko bide nagusitik (1918) areatzara doan kalea da, etorbidea. Bertan eta aren inguruan dagozan leku-izenak ez dira, gure eritxiz, egoki-egokiak izan. Orduan, erdibidekoa artuta. Esan bear da, beste leku batzuetan ondartzat berbea erabiltzen bada be, Bakioko erabiltzen dan “areatza” (*aritz*) berbeari eutsi gura izan deutsogula, Bakioko euskerearen lekuko.

IBARRATORRE kalea: *Ibarratorre* (1641) da izatez errian egon dan torretxerik zaarrena edota bakarra. *Torrezar* (1883) izenagaz be ezaguna da errian. Gaurko egunera arte be, torretxearen ezaugarriak gorde ditu etxe orrek (balio andiko 4 azkonzulo), eta orregaitik balio kultural eta istoriko-arkitektoniko itzela dauka. *Ibarratorre*koenak izango ziran, seguru antzean, sasoi zaarretan, *Ibarragoikoa* (1641) eta *Ibarrabekoa* (1641) baserriak, *Santa Katalinako ermitea* (1891), eta baita *Bengolea* (1561) olea eta *Bekoerrot*a (1745) errotea be. Torretxearen menpean egon zan lurraldekoak diranak, atan be. Alantxe ulertuten da zergaitik, errekearen bestaldean egon arren, *Basigoko* lurrak izan ziran arrek eta ez Bermeokoak, alango lurradar erara *Zubiaurrealde*ko lurretan sartuten dana. Inguru istoriko orreri eutsi gurean, kaleari izen ori imini deutsogu.

IBARRETA kalea: *Ibarreta* izeneko etxe moltso barria egin zan inguru aretan orain dala denpora asko ez dala. An dagozan soloen arteko bat *Ibarreta* (1890) izeneko da eta berau aukeratu eben etxe moltso barria izentetako. *Ibarreta* soloa *Ibarratorre* eta *Etxebarria* (1641) etxetakoak zan. Izen au Bakioko beste inguru batzuetan agertu arren be, etxe moltso orren inguruan dagoan kaleari imini jako.

ITURRIONDO kalea: *Iturriondo* (1910) edo *Iturrikosolo* (1910) izan ziran *Makatzeko iturria* (1952) deritxonaren ondoan egoan soloaren izenak. Solo au *Uribarrigoikoa* (1634) izeneko aldeetxeetakoak zan Kaleak, bada, bertako lurraren izena eukiko dau.

KANPOSOLO kalea: *Kanposolo* (1910) izeneko lur saila *Artetxe* eta *Gorrondona* aldeetxeetakoa zan. Alanda ze, kale onek bertako izena artuko dau.

KONTXAONDOKO ZUBIA: *Kontxaondo* (1891) da errekearen alderdi bietan dagoan lur saila andiaren izena. *Erreteria* etxekoa izan zan. *Erreterriako zubia* (1883), *Arrizubi* (1892) edota *Arrizkozubi* (1909) eta *Olaskoetxe*ko *zubia* (1930) izenak ezagutua izan da au zubiau. Guk, ostera, *Kontxaondoko zubia* (1901) izena aukeratu dogu, errekalde bietako toponimo zaarri eutsi gurean. *Kontxaondo* (1900) da, izatez be, ango etxe baten izena, edo *Olaskoetxe* (1921) izenagaz ezaguna.

KURTZEPERIOKO MALLAK: *Kurtzeperioko bidea* (1897) izenagaz ezaguna izan zan errian. Gaur egun, barriz, *Kurtzeperioko mallak* (1917) izenagaz ezaguna da, mailak geroago baten imini jakozan eta *Kurtzeperioko* izan zan gaur egun ilerria dagoan lekuan bertan egoan ermitea, au da, *Kurtzeperioko ermitea* (1880).

LAPIKOLURREKO MALLAK: Pelotalekutik eta Armintzako bideginoko bideari emoten jako *Lapikolurreko mallak* (1981) izena. Asikeratan, bidezidorra izan bazan be, mailak geroago baten egin jakozan. Agoz be, alantxe esaten jako gaur egun be.

(jarraitzeko)
INIAKI MARTIARTU

ANDRA MARI TALDEA (GALDAKAO)

GALDAKAO KO KATOLIKU-EKINTZA KO EUSKAL DANTZAK ETA ANDRA MARI

EGIN-ALAK ETA NAIK:

Galdakao n gerratik gero, ez egoan gauza aundirik: Musika-banda, tabernak, frontoia, futbola, Bengoetxe n Jainkoak nai ebanean Lekue ren tabernan erriko bertsolari banakak, eta bertsozaleak be antxe egoten ziran euren bertso-papelak zirala- ta, Tomas Garai, Patxi Barrenetxea (Altzetakoia) eta abar.

Eta kurutzeko eleizan Katoliku-Ekintza koen artean eleizako sakristian, zine mutua emoten zan. Berezko mai baten pin-pon jokoia be egiten zan, ajedrez-jokoak be bai, baita kantuak kantatzen irakatsi be egiten zan, Sesteko zaletasuna be ortik egin zan, baita teatroak be egiten ziran. Zugutzu ko teatroan, tokia egoan-eta, gerra-aurrean teatroak orrelan egiten ziran, baiña gerra-ostean be teatro bat baiño geiago egin zan.

Gerratik gero, Galdakao ko parroko sakristian ekintza edo eginak eta nairik geienak egiten asi ziran.

1952n. ean eta urteak lenago be, D.Domingo abadea-gaz eta beste batzuk be Katoliku-ekintza, Kurtzeko parrokan, eleiz ortan sortu zan.

Urte areitan be ei egozan Katoliku Ekintza ko benjaminak, gazteak eta Katoliko Ekintzakoak.

Orrelan dakigu nesken artean taldetxuak be egon zirala. Eta neska ta mutilen artean katekistak be bai. Geroago sortuko zan Gau-Gurtza edo "Adoración nocturna".

Denpora areek orrelan izan ei ziran. Baiña neska eta mutilen artean dantza lotua egitea galazota eukiten eben. Eta dantza egin bear zan egunean, dantzea eziñezkoa izan eta neuk txistua jo neban.

1956n. urtean Jose Migel Etxebarria "Juanxu" jaunak jota pausuak irakasten parau zan Egiarte txistulari izaten zala. Gero Egiarte k soldaduzkea egitera joan bear izan eban-eta, 1956-12-8 an neskak zinta dantza, jota, arinarin, eleiza ta abadeen etxe bitarteko landatxuan dantzatzeko txistua jotzen neu eroan ninduen.

Gero 1957n. urteko udaldian Iñaki Ibarra jaunak espata-dantzaren pausuren batzuk irakasten ebazan eta laster-rean itzi eban, eta udagoienerantza Jose Mari Gainza k eta Jose Ramon jauna Gaztedira bertan dantzan egiteko asmoaz joan ziran, kuartelean Jose Mari Gainza k egunak libre eukiten ebazan eta laster itzi eben, baiña Galdakao ko Katoliku Ekintzan dantzako pausuak ikastera joateko eskatu eben gero eleizan irakasteko eta orrelan, gazte taldekoak ikusita Juan Orozko "Txinbera" Galdakao n Andra Mari Dantza Taldea izango zana sortzeko bialdu eben.

1957n. eko udagoienean Egiarte gaz batera txistulari neu be izan nintzan. Eta mutil gitxi izatetik, Txinbera k

zortzigarren ezpata-dantzari izatera neu beartu nindun. Gero 1958n. urtean, negua igarota, udabarrirantza-edo, neska ta mutil geiago etorri ziran dantza ikastera eta euron artean Justo ta beste batzuk be bai.

Espata-dantzarien lenengo dantzaldia Usansolo ko San Andres etan egin zan, eta bigarren urtenaldia Galdakao ko enparantzan 1958n. urteko abenduaren 8 an izan gendun.

...

1980n. urtean Andra Mari ren 25n. urtean eztai-jaia egin bear zala ta, bai bazkarian, dantzaldian eta jaialdian ospakizun ortan parte artzeko deitu ginduezan. Batzuk 25 urteak ez ziralako, ez ziran joan eta beste batzuk 25 urte Andra Mari sortu zala ez zirala jakiñik eta esanik, bazkari- ra, dantzaldira eta jaialdira joan gintzazan. Gutzat eta antolatzaileentzat be garrantzirik aundierna lagun-arteon egun bat ondo pozik igaro eta alkar ikusteko jazo-aldi baten naia ta premiaasuna geunkalako. Egundaregaitik antolatzaileei eskerrik beroenak; baita geroagokoakaitik be bardin. 40n. urteko liburu aretan 9n. orrialdean auxe be esaten da Mariano k diñoala 40 urte baiño geiago ez zirala, baiña nik 40 urte ez zirala esan neban eta barbarik ez eta ona ez da bardin. Gauza bat da Andra Mari sortu gendun 1957n. urtea, beste bat Andra Mari ko sortzaileen asikerea izate- tik 1956 an jota-pausuak Katoliku-Ekintzakoak bertan ikasten eta dantzaten egotea, beste bat 1956 ean Katoliku Ekintza neska batzuk neu txistulari nintzala zinta-dantza baita jota eta arin-arin dantzatzea, eta laugarrena, ez gu zarren geieneok baiña bai antolatzaileen geroagokoakaz be akordu baten pareuta ez Andra Mari rena baiña bai sortzaileena 1955n. urtean ifintea. Lau eratan be ondo, errespeto bat bear daben gauzak dira-ta.

DANTZA-TALDEAREN LAGUNTAILLE

Dantza-Taldea sortu eta lenengo urtenaldietan, dantzan egiteko tresnak eleizako sakristitik eroan eta ekarri be egiteko euron autoekin laguntzaileak be izaten ziran. Euron artean bein Jesus Sierra (praktikantea), baita bein edo geiagotan Justo Estrada dantzaria. Baita Markos, Plazakoetxe n estankoa daukon gizona be, baiña bere furgoneteagaz geien lagundu eban gizona Klaudio Ginea jauna izan zan. Eskerrak oneri, txistulari, dantzari eta irlandera- ez geunkan zertan ibilli dantzarako tresnak ekarten eta eroaten.

Galdakao ko Zirilo Bikandi ren autobusa eta Ruperto Barrenetxea ren taxisa be taldearen atzera-aurreretan era- billi genduzan.

DANTZAK

DANTZA-IRAKASLE

Dantzak irakastera Andra Mari dantza-taldea izango zan ikasleakana lenengo etorri zan gizonetzkoa Juan Orozko "Txinbera" izan zan. Eta geroago lenengo andrazkoa Aureli Arroyo Aldekoa. Neska onek itzi-orduan dindirri'tik 1961-62'ean 24 urte ebazala Edurne Isusi andrazkoari esan eta etorri zan, eta orrelan 1969n. urtera arte jarraitu eban. Edurne Bilbo'n Iralabarri'ko Frantziskotarren konbentuann ibilli zan, 13 urtegaz Batz Alai taldean dantzan asi ta andik dindirri taldera joan ondoren 24 urtegaz Andra Mari dantza taldera etorri zan. Andra Mari'n egoala, Edurne Basauri'ko Edurre taldera be dantzan irakastera joan zan baita Miraballes'ko Etorki taldera be irakasten joan zan Pedro Mari Azkueta, Pakito Barandiaran eta Jesus Altuna eta Dindirri'ko jentegaz be dantzak irakasten joan ziran.

Txinbera'gandik gero beste dantza-maisu batzuk etorri ziran eta azken gizonetzkoa Jose Luis Barrenetxea, "Txelu" izanik onek urte batzutan jarraitu eban. Baiña, ia lenengotarik dantza-taldeko espatadantzari batzuk baita neskak be eurak jakiten ebena irakasten asi ziran eta dantza-taldetxuak egiten be bai. Onelan, Galdakao'n Zugatzu'ko fraille ta monjatan irakasten asi ziran. Gero Andra Mari talderako dantzariak izateko asmotan.

Mutillai irakasten lenengoak Zugutzu'n eleizako arkupean 1959n. urtean Jesus Uriarte eta Jose Mari Gainza izan ziran. Gero Justo Estrada, eta geroago Jesus Mari Ariznabarreta eta Jose Mari Etxezarraga. Eta Jesus Uriarte'gandik ikasi eban Jesus Altuna "Dima" k be eta Zugatzu'n dantza-irakasle biurtu zan. Marianjeles Lara Zugutzu'ko monjetan neskai irakasten ainbat denporan ibilli zan eta denporaldi baten Zugutzu'ko eleizearen arkupean neskai dantzak irakasten Maria Jesus Garabieta eta Bego Asua be ibilli ziran.

Marianjeles Lara, Jose Luis Egiarte eta Jase Mariano Barrenetxea txistularien laguntzaz Erletxeetako abadeak

eskatuta, talde bat sortzen ibilli gintzazan eta gero andik Andra Mari taldera be neska batzuk etorri ziran.

Jesus Uriarte eta Jesus Altuna "Dima" gero Zaratamo errira joan ziran dantza-talde bat sortzen. "Dima" geroago Miraballes errian eta Igorre'ko errian dantzan irakasten ibilliko zan.

Kontxi Gainza'k Bilbo'n Alameda Mazarredoko konbentuan izeko bat eukan moja eta aren esanetatik, berak jakin ebana berton irakatsi eban.

Andra Mari sortuta, Larrabetzu, Zaratamo eta Basauri errietatik be Galdakao'ko Andra Mari Dantza taldera dantzaten etorten ziran, orrelan tadea osotzen zala.

Dima ta ni, bein, autobusa Galdakao'n artuta Zornotza'ra joan eta an kotxe bateri gelditzeko eskatu-ondoren txoferrari ia Gernika'ra eroan al ginduzan esanaz, orrelan Gernika'ra eldu gintzazan, gerra-aurreko espata bat ikusi eta neurriak artzera. Espata bera lurrean ondo gorde eta batuta egoan baita era onean. Eta bear ori egin gendun Andra Mari talderako.

Eibar'eko dantza talde batera Jose Mariano Barrenetxea, Edurne eta Pakito be joan gintzazan, sagar-dantza eta sardineren dantzea irakasten eta ori 1963n. urte inguruan izango zan.

Isidro Plaza'k, Sabino Kareaga'k eta Marikarmen Olabarieta'k Larrabetzu'n, ori bai, taldean bai mutillak eta bai neskak talde bat egiten edo lortzen ibilli ziran. Eta Galdakao'n Mari Karmen'ek eta Isidro Plaza txistulariak, Olabarieta'n (Poblado de Firestone toki orretan) neskatalde bat lortu eben.

ANDRA MARI DANTZA TALDEA

Kurtzeko Santa Maria'ren eleiz-torrearen aldeko eskullara edo mailletan, 1960n. urteko iraillean egiña da argazki au.



➔ Gure ezker-aldeetik asita izenak emon ezkerro, eta eskoi-alderantza joanaz izen oneik dira: Jose Mariano Barrenetxea, (txistularia) Justo Estrada, Juan Jose Altuna (txistularia), Jose Mari Gainza, Jesus Mari Ariznabarreta, Jesus Mari Elorriaga, Jose Mari Etxezarraga, Jerman Solaun, Bixente Arroio, Pedro Ignazio Artetxe (Kepa) Jose Manuel Goiria, Daniel Altuna, Jerman Maeso, Daniel eta Jerman'en aurrean dagoan dantzari gazte-txua Pakito Barandiaran eta gure eskoirantzago egin ezkerro, Jesus Uriarte, Jose Luis Egiarte (txistularia atzeko aldean), baita Jesus'en alboan Karmelo Martinez eta, azken-mutilla, Pedro Mari Azkueta.

Neskak ilada bitan agertzen dira. Gorengo iladakoa eta Justo Estrada'gandik gure eskoi-

rantz asi ezkerro Maite Asua, Mari Karmen Olabarieta, Mari Bego Uriarte, Marianjeles Gainza, Blanki Dalmau eta Mari Niebes Ogara. Gure ezker-aldeetik eskoirantz izendatzen asi ezkerro, Ana Mari Irigoien, Maria Jesus Garabieta, Marianjeles Lara, Begoña Asua, Domitila Bernaola, Mertxe Gutierrez, Marianjeles Artetxe eta Mari Bego Loroño.



➔ Argazkian zuriz jantzi barik dagona Justo Estrada eta au lenengo dala Irugarren Juan Jose Altuna txistularia, eta nesken artean jantzi ezberdina jantzita dagoana Marianjeles Lara, neskatillen dantza-irakasle zala, 1960n. urtean dantzan eginda. Zugutzu´ko fraille ta mojetako konbentuko gazteak 1960n. urtean Dinamita fabrikako ofizinan aurreko maillatan.

Zugutzu´n 1962n. urteko argazkia, mojetan zebillen neskatilla arteko dantza-taldea, Marianjeles Lara irakasle zala. Txistularia neu izan nintzan.



1964n. urtean Zugutzu´ko mojetako neskatilla dantzari-taldea, Marianjeles Lara irakasle zala eta txistularia Jose Mariano Barrenetxea.

TXOMIN ETA TXELU

Argazkian begitu eta geure ezkerretatik izenak esaten asi ezkerre, Jose Mariano Barrenetxea, Jose Luis Etxebarria "Txelu" eta Txomin Untzalu. Ni Getxo erriko areetan orduko denporetan egoan tren-geltokiaren alboko etxe baten Marternidatean 1937n. urtean jaio nintzan, Txelu 1925n. urtean Begoña´n jaio zan eta Txomin be Begoña´n 1934n. urtean jaio zan.

Txelu umetatik bere aitak eroanda sei urte ebazala Begoña´ko batzokian aureskua eta orripeko jantzak egiten asi zan, bere asaba lenagoko aureskulariengandik ikasi-ondoren. Batzoki bat lenengoz zabaltzen zanean, jaialdiaren egunean, sei urteko Txelu dantzatzera eroaten eban eta batzoki orrean artean Galdakao´n, Usansolo´n baita Larraskitu´n, Matiko´n eta ainbat lekutan dantzan egin eban orretarako eroaten ebelako.

Txelu´k zortzi urte ebazala Euskadiko Lendakari Jose Antonio Agirre´ren eta bere emazte Maria Zabala´ren aurrean be dantzatu eban Begoña´n ezkondu ziranean,



1933n. urteko uztaillaren zortzigarren egunean. Aureskua berak egin eban, Txelu´k, eta dantzatu be bai. Begoña´n, aureskua antza beti danik dantzatu izan da San Isidro egunean eta baita agustuko 15n. egunean be. Alkatea beti aureskulari izaten zan eta oitura bera, antza, gaur be beteten ei da.

1957n. urtean Galdakao´ko gazte batzuk Gaztedi-Dantza taldera joan ziran, Txomin Untzalu jaunagandik dantza-ikasketak artzeko. Galdakao´ko eleizako sakristian irakasteko asmotan. Baiña Txomin´ek bereala Juan Orozko Jaunari esan eta dantza-talde bat egiteko ardurea emon eutson, eta urte-pare baten etorriaz gero orrean Andra Mari izango zan taldea lortu zan.

Txomin Untzalu jaun onek Txelu jaunaren dantza-liburuetan dagoen dantza marrazkiak doanik egiñik aparte, nire liburu "Alboka Entorno Folkloriko" ortan dagozan dantza-marrazkiak be, nik emoneko argazkietatik egin eta dirurik ez neukan lez, lan guztiak doanik egin eustazan, bai gogorik onenagaz eta biotzik onenagaz be. Lerro oneitatik eskerrik asko zuri Txomin.

Txomin Untzalu Bilbo´ko eskolapioetan dantzan ebillala, bertan Manu Gerrikabeitia´gandik dantzak ikasten ebazan eta gero, amazortzi urtegaz Dindirri dantza-taldera joan zan, bertan Txelu dantza-maisu zala. Txelu´k Begoña´n Karmelo´ko dantza-taldean be dantzak irakas-

DANTZAK



ten ebazan, baiña Untzalu´ri eskatu eutson ia dantzak irakastera Karmelo´ko “Taldea gazte” orretara joan leitekean. Txomin´ek baietza emon eta joan zan, geroago GAZTEDI izango zan dantza-taldera. Asmoa Karmelo´n be dantza-talde on bat lortzea izan zan eta orretarako joan zan Txomin.

1960n. urtean. Txelu´k Dindirri taldea itzi orduan, Galdakao´ko Sabino Larrea joan jakon, Galdakao´ra dantzak irakastera etorteko esanez. Txelu´k Kastaños kaleko Ituarte´nean arratsaldeko zortzirak arte lan egiten eban eta ezin ebala erantzun ei eutson. Baiña Sabino´k Txelu jaunari lantegiko atean arratsaldeko zortziretan taxia ipiñi eutson eta Galdakao´ra orrelan ekarten eban asteen birritan dantzak irakastera eta bueltan etxera autobusean joaten zan. Urte batzutan Txelu orrelan etorri eta Andra Mari mailla aundiko dantza-talde izatea lortu eban. Eta Txomin Untzalu´ren antzera ezertxo be kobrau barik.

...

1963n. urteko iraillaren 8´an Arrate´ko Ama´ren lareungarren urte-urrena.

Egun orretan eta meza nagusiaren ostean, landan dagoan kurutzera giño prozesiño bat egin zan. Kurutzearen aurrean “Arrate´ko Ama´ren dantza” iñozkorik lenengoz egin zan, eta Galdakao´ko Andra Mari taldeak egin genduan ori.

Orretarako eta lenagotik Pakito Barandiaran´ek eta Jose Mariano Barrenetxea´k Arrate´ra joan-aldi batzuk egin ebezan Jon Oñatibia jaunagaz egoteko berak guri dantza barri ori irakatsi eta guk Andra Mari Tal-

dean zelan dantzatu bear zan irakasteko eta orrelan egin zan Arrate´ko Ama´ren dantzea.

OIARTZUN´EN

Oiartzun´go txistulariak Jon Oñatibia konpositorearen “Arrate´ko Ama´ri” obra barri orreri estraiñaldia emon eutsoen. Txistulerien ostean Andra Mari Taldeko neska-mutil areik dantzaren agerketa egin eban. Arratsakdeko lauretan Euskal-Erriko Dantza soltuan txapelketa egin zan eta maikoen artean Galdakao´ko Jose Mariano Barrenetxea be izan zan.

Urte orretarako Jose Luis Zallo abade jauna be, bere Bespa motorrarekin dantza-talderako ekintzen

billa ibiltan zan eta Arrate´ko Ama´rena be berak lortu eban.

IPARRALDERA BIDAIAK

Sabino Larrea´ren aginduz Iparraldeko bi edo iru erritara Jose Mariano Barrenetxea ta Pakito Barandiaran bertako Udaletxeetako arduradunakaz egotera joan gintzan eta ori 1962n. urtean edo izango zan. Iparraldera geroago denpora gitxian ainbat urtenaldi egin genduzan.

DEIA izparringian 1979-09-15´ean agertzen dan argazkiak eta euren artean bandeari, koralari eta dantza taldeari buruz artikulua be bai. Batzokitik eskatu euskuzan Antigüedad jaunak egunkari orretan argitaratzeko.

14 GALDAPANOKO JAIK 1964, sábado, 13 de noviembre de 1964

El grupo de danzas Andra Mari en 1971

El grupo de danzas Andra Mari en 1964

Un actuación por todo Europa

El prestigioso grupo de danzas Andra Mari

El grupo de danzas Andra Mari, fundado en 1914 por los señores Sabino Larrea, Juan Oñatibia y Juan Oñatibia, es el más prestigioso grupo de danzas de Euzkadi. Ha actuado en todos los países de Europa y América, y es el más conocido y respetado grupo de danzas de Euzkadi.

El grupo de danzas Andra Mari, fundado en 1914 por los señores Sabino Larrea, Juan Oñatibia y Juan Oñatibia, es el más prestigioso grupo de danzas de Euzkadi. Ha actuado en todos los países de Europa y América, y es el más conocido y respetado grupo de danzas de Euzkadi.

Eta nik artikulua eta argazki orrean artean 1958'ko urteagaz batera 1960'ko argazki bat errakuntzaz bialdu neban. Eta dantzari buruzko errakuntza orrelan agertu zan.

Dantzari eta irlandera batek baiño geiagok errakuntzako argazki ori ikusita eta geiago pentsau barik auxe bururatu eben: Oño! Argazki ori 1958'koa ba' da ni iru urte lenago dantzan ikasten asi nintzan (Eta erretratuaren errakuntza orrek, 1958'tik 1955n. urtera garoaz, iru urte gitxiago doguzala.

Nik 1968-12-08'ko argazkia emon barik, errakuntzaz eta urtea txarto emonda, 1960n. urteko argazkia 1958'kotzat emon eta urtea 1960 izanik eta iru urte gitxiagokoak, 1955n. urtea emon. Argazkiaren benetako urtea 1960 izanda, eta iru urteak kendu ezker, dantza-taldearen sortuereagaz bat egiten da: 1957n. urtea da dantza-taldea sortu zanekoa. Gauza bat da dantza-talde baten sortuerako urtea izatea eta beste gauza bat 1956 urtean jotea eta arin-arin ikasten asi zaneko urtea eta taldearentzako urteak ortik kontatzen astea. Baiña ez dira gauza bardiñak.

1958n' EKO ABENDUAREN 8N. EGUNEAN, GALDAKAO'KO PLAZAN

Urte orretan Txinbera'gaz dantzan ikasi eta gero, Sorkunde Garbia'ren egunean jantzan egin gendun. Txistua Jose Luis Egiarte'k jo eban, baita neuk be bai, neskakin dantza pare bat-edo dantzatu ondoren. Baiña nai ta nik zortzikoa ta Txankarranko dantzak ikasita euki, lenengo-



tan zazpi dantzari ta bi txistulari izanik, Txinbera'ren aginduz ni zortzigarren dantzari izatera pareu nintzan. Zazpi barik zortzi-edo dantzari geiago egon ba'ziran nik txistulari lez dantzan egundo ez neban ikasiko. Geroago mutillak ugaritu ziran eta neskakin be dantzatzen ikasi gendun eta orrela dantzatu gendun plazan.

Juan Jose Altuna txistulari gaztea orduantxe asi zan taldeagaz bere lenengo jo-aldiak egiten

Galdakao'ko plazan, dantza-taldearen lenengo neska-mutil bikote biak kasik ez dira ikusten, baiña bigarren iladako bikote biak bai. Eta frontoi -aldeko etxe eta jendetzadagoan aldetik izendatzen asi ezker, Kontzi Gainza, Jose Mariano Barrenetxea, Bixente Arroio eta Maribel Txaurrondo dira. Eta gero atze-aldeko Azkueta eta abar agertzen jakuz.



Galdakao'ko plazan bertan eta gure eskoi-aldeko aldetik izendatzen asi ezker, Jose Luis Martinez eta Karmelo Martinez dira, naizta euron neska-bikoteak ezagutzeko moduan ez egon. Gero, bigarren bikotekoak Kontxi, Jose Mariano, Bixente, Jose Luis jaunaren atzetik eta Maribel Txaurrondo baita ostetik talde guztiko dantzariak be agertzen dira.

JOSE MARIANO BARRENETXEA

BAI, MINISTRO JAUNA!

(5N. SARIA)

Itzala denpora asko ez dala gizonezko batzui txoko baten jazo jakena!

Jazotekotan be, euren asteroko lagun-arteko apartaia jan-ostean ziarduela.

Gizon oneik aspaldiko lagun zaarrak ziran, ume-umetatik izan be, egia esateko: Eskolako aur-mailletan alkar ezagutu eta geiago, amaren magaletik iñoiz ordura arte kana batetik urrunagora luzeran aldentuta egon barik. Kia! Ezba, ezta...! Errubako bildotstxuak ziran aaztu eziñezko urte areitan.

An bertan buruz eta kantuka ikasi-erazo eutseezan euren eziketarako eleizako errezuak eta aditu ezinezko itz neurtuetako bertso laburrak, dana gatzeleraz.

Arbel baltzetan zenbakiak eta itzak kare txikiagaz marrazten ebezan euren autsetan ito-arte eta arein menduaz, ligor, barre gitxikoak izatea eta goitik beerako ator baltzez jantzitako prailleen ardurapean egon-berra... Eta dana ikasle txiki areik ordura arte amamaren altzoan, laztan gozoka eta gura-izanera aziak ziran kontuxu.

Ikasita euki eben gorriak ikustea zer dan lau arrabete ez eukezenerako.: Meza nagusi gogaikarri ta aspergarri guztietara erreskadan eta binan-binan joaten ziran, eta eta meza osoa latinez iruntzi-bear.

Aste Santu eta Gorpuztietan kalez-kale eleizako irudiekin batera, jantzi barriakaz jantzita, eurai egokiezan abestiak abestuten ibilli bear izaten eben...Eta abar ta abarra.

Zazpi urtekin ume-zorri oneik zentzun apur bategaz ibilteko gauza ba-zirala-ta, leenengo jauna artzea euki eben eta konturatu barik, patxada ederrean sartu ziran euren ume koxkorren arora.

Etorri jaken, baita, abotsaren aldakuntza be, umeena itzi eta gizonena artzeko, praka luzeak jantzi eta "txingar"en bibotea labanez moztu-bearra.

Oraingoan morroi-sasoian sartu dira eta umetatik bizi izan eben kidetasuna desegin jaken, batzuk asi barritan lanera eta beste batzuk erritik kanpora mailla aundietako ikaste-txetara joan-bearra euki ebelako.

Urte luzeetan sakabanatuta egon eta gero, begibeereak eta tximurrak agirian ebezela, sarriagotan alkar ikusten ziran-ean txoko batera kide lez sartzea otu jaken, lagun zaarretako jan trope bat illean bein beñik bein mai baten inguruan euki aal izateko.

Leiaketak-eta egiten ebezan euren artean nor ete zan onena lapiko koipetan, txaloak eta zorionak entzun guraz euren taiu-bako ekinagaitik, ordura arte patata bat patxadaz zuritzen ikasi-bakoak.

Beingo baten eta urtean launan-launaz doazen amarkandan sartuta egozala danak, euretariko bat eta aspaldi guztian non eta zetan izan ete zan entzun barik, karteradun ministro izendatu eben laterri aretako uriburuan. Ondo irakurri dozue, lagunok! Ministroa! Bai!

Gizon au, benetan ikastuna izan zala guztiak gogoratzen eben eta igarrita eukan nozbaiten goi-maillako arduretara igoko ebara bere ekintzetako lanetan.

Poz aundiz artua izan zan izendapen ori guztien aldetik eta amaikatxu zer-esan be izan zan, baita euren aste-buruko batzarretan barriketarako bidea be zabaldu jaken.

Arrezkero, bialdu eutsoezan mezuak gorantziekin eta noiz etorriko ete zan eskatu ta eskatu ebiltzazan., iñoiz astirik izaten ba'eban, lagun zaarrak besarkatu eta euren umezarotakoak barriztatzeko.

Eta usterik gitxien ebela, ara zelan baiezko kontua erakusten dautsen. Eta eguna be ipiñi eban ia orrelan izaten ba'eban guzti arein guraria eta gogoa beteteko area.

Egun orretan, jateko bereizia gertatu eben eta bazkide guztiak alegindu be bai, txokoaren ertz illunetako loigarriak eta aramu-sareak garbitzen eta egalak lore-txortakaz txukuntzen.

Ezkaratzean, euretariko sukaldari txapeldunak izertzan ibilli ziran janariakaz maia ondo apaintzden, Ministroari bere ederrak egin-naian.

An egoan maikadea egotekotan be! An ebillan mataza! Sinistu be ez zenduen egingo! Eta zelako kuxkuxkeriak egon zirala uste dozue? Arein jatekoakaz derrigor derrigorez egin bear koipetsu muzturak! Eta kanpotik ikusita be, esan eikean eztegiaren bat ospatzen egozala!

Euren aundikia agertu zanean eta aurrezkutarako patxadazkorik bat be euki ezean, eskolako kanta bategaz abots baten artu eben jantokiko ateetan eta ez dakit ba begi batzuk malkoz buztita ez ete ziran ikusi! Biotzean poza biztu izan jaken eta ainbeste urte alkarregaz egon ez eta gero, atan be.

Iñork ez eban esango diputadu bat ez zanik! Ez ba, izan barik! Gitxik euki leikeen gauzea zan, olako gizon altsua eurokaz eukitea!! Sinistu ezin, ikusi ezik! Bereala gizon argitsua eurakana etorri!

Ango mosuak, eupadak, eta bostekoak emon-bearrak! Guztiak ebilkozan beraren burua giraltzen! A zan iretargia laba-gaiñean ipintea! Urrunetik be entzutekoak ei ziran alkarren lepoa astindukeran ataraten ebezan otsak!

Afaldu eta toton eginda egozanean, euren ume-sostroko arora sartu ziran berbabidez eta ordurako zuri ta baltzean argazki zaarrak zabaldu eta eskurik eskura emon eutsoezan alkarrari, barre-karkaixak egin-alean

Erakusten ebezan ule-zapak, aspaldion galduak, eta aingerutar begibera gardenakaitik, euren loiarreko blusen barruan dagozela lore-pototxuen antzera, euli bateri alborantza egiteko ez ziralakoen itxuraz.

Ta eskilarapekoa zala edo paitarra zala, edo mamagoxuagaitik... kontua da, lotsa apurren bat galdu ebela eta asi ziran ikusteko komediak: Euretariko batzuk praka-barrenak sorkituta, txirletarien antzera, garrikoa nasaituta eta arkon-darea kanpotik ebela, lau ankan jarrita, bata besteari ausika eta uzkiari usainka txakurrenak egiten, jandakoak bota bear ebezala ta soro-barreak entzuten zirala, otu jaken galgoen eta podenkoarenak egitea erbien atzetik gizategi osoan zear eupielako zarraparradatan.

Beste sail baten eztabaida gogor bat biztu zan neurtitz asmatzailleen gaiñean: Apuleio zala onena, Lafontaine zala ohea, beste batzuk ezetz, Esopo'renak zirala onenak... Ta olantxe ezipanak ago-txistuz agortu-arte. Samaniego ta Iriarte gutar biak be euren zaleak eukezan. Ez ba. Euki barik!

Eta leia txiki bat sortu zan zeñek ederrena agoz bota, bakoitxak gogoratzen eban neurrian. Ministroa ipiñi eben

epaille eta onek berak, zutunik, eta aurpegiz illun, eskuak garri-atzetik barru eta ganekin txalotxopintxuketan praillearena egiten, beteko eban alako ekiña. Eta banan-banan jarlekutik zutunduta eta umezko plantak egiten, bertsoak buruz eta abots goraz botaten asten dira gogotsuenak:

– Bi millako eulitzea zurrumbildu zan abe baten ezti usaiñera/ eta gosezko saporegaitik/ ilten dira....

– Igo zan tximinoeme bat intxaurrondo baten ganera/ eta potiñetan egoan garauz bat artu-naiez/ arrika jaur...

– Azeri batek, arrizko gizon-irudi bati ondo eginda gero usaiñari/ ire burua ederra dok esan ei eus...

– Tximiñozko emea sedaz apaindu arren beti eme matxango/ olantxe diñosku kopliek/...

– Zein dogu emen ba gutariko politena etxe-katuari bere idunean kaskabilloa ipinteko gauza danik?

– Bedarra jan alean ebillala astotzar bat larrean/ txirula bati ateratzen dautso soiñua, bafadaz alan bearrez/

– Esne-kantiñe buru-ganean sorkiagaz daroala / neskato bat saltzeko asmotan doa/.....

Eta olan bakoitza bere buruko garaunai biurriak atera alean, aztuta eukazanak gogoratu ezinda.

Praillezkoak orduan: Pupitre-ganera!! Burdi txiki ori!!! Balentzia 'ko iretargian zagoz zu beti!!

Ez euken aspertzeko astirik. Poza zan nagusi, barreka txixak egiñez eta txokor-erretzailleen keiak ez eben izten ia-ia ezer ikusten. Ministroaren saioa irizten da-ta, ara emen berenak:

Lagun-moltzo bat mai-aurrean batu zan aparitan/ amar ziran eurak eta amaika aragi-zerra plater-azalean/ eta enparaua zeñientzat? / ausnartzen egoan betek, bakoitzak berea iruntzita gero / komunera joialakoaren aitzakiagaz argia amatauta, izango dok nerean, bai? Ustekoa eginda luzatzen dau bizkor eskua./ Zer da aurkitzen dauana ba? Okela-zatirik ez beintzat / bederatzi esku bata bestearen ganean bai, ori bai!!

Ango irrintzi eta txalo zaparradea ikaragarria izan zan eta esan eikean goiak beera etozala.

Gaueko ordurik txikienak joanda, egoerarik nasaienean aurkitzen zirala, bertako telefonoa asten jake txirrin eta txirrin. Ministroarentzat zan. Polito baten doia eta lur jota datorke. Bere ondoan jeten egoan lagunari belarrira zeozer esan eutsen, isil-une bat egin eta tentelak lez aoa zabalik zer entzungo danak egozala ospa egiten dau abazuzika eta ebentadaka, oiñestaria ba litzan lez, frantzetarren erara.

Zer dala-ta, lagun orrek berenetik urren egoanari zeozer diñotso isillean eta olan batak besteari urrengorik urrengora, kalerako bidea artuz mekaunenka esatekoak esan eta jakiñaren gainean egon ziran eta gizon oneik be, bere zan txarra madarikatu alean, ospa egiten dau albo-alboka, ateak zabalik itzita, lapurrak barrura sartu leikiezan be ardura barik.

“Ahí va la ordiga! Baiña zer istorio dogu emen ba? Ze katerio dago emen ba? Zer?”

Esango dautzuet, bai: Ministroa, egoan kargutrik kendu egin ebela izan zan telefonozko albistea eta gero gero-koak...

Eta arei zer, tamañu aretako txalaparta ateratzeko? Entzun ondo eta aditu egizue obeto: Ministroaren ondoan jarritako lagun miña zanak eukan bear-lekurik ederrena. Ministroak ipiñitakoa zan eta beronen ondokoak eukan nondik bizi beronegaitik eta olan erreskadan eskilarako maillak jatsiten diran antzean. Ara ba: Ango maian jarritakoak, albokoan pentsura egozala eguneko ogitarako. Ministroa berau zala ogikiñen nagusi atan be, iñok ez ekiala olakorik beronek izan ezik eta orrelan ba, deusestuta geratu zan ordura arteko anaiditasuna, kale gorrian egozalako ego-gez dan-danak. Zeru ta lurraren erdian, sotinka, mokoari zintz egiten eta... baten batek ez ete eban ba, kaka melenie egingo bere fraketan ordura-arte bizi-modu lar ona galduta ikusi ezker, naita nik olako atzerakadea emoten dauan sunda bat asmatzen zalako, beatz-ganean eta txangoak zabalik ebillen gizon baten almenetik.

Eta zer barri dala areingandik? Esango dautzuet! Ba, mordo bat Ameriketara artzain joan ei zan derrigorrez, beste batzuk Terranoba'ra itsasora makailautan beartuak eta enparauak ONG bategaz Ego-Ameriketako oian sako-netara, aro obeak etorko ziralakoan barrero uneda onen atzetik.

Esandakoarekin gitxi ba' dozue, lagunok, aundiagoa bota eta amaituko dot neurea: Iagoba 'ko bidean, gizon bat ortozik eta iru anka, aspaldiko bizarrarekin, txirla ta kukurbita bana didilizka dabela, gure Ministro beraren antz-antzekoa zana eta ez ete zan izan bera? Ikusi ei eben Konpostela 'rantz buru-makur otoika doiala, muxmuxka isillean.

—Agur t' erdi danoi—

ALBERTO NARBAIZA ETXEANDIA 'k

AMATASUNA

Amatasuna

Azalezinezko berba leuna.

Amatasuna

emeak txiki-txikitatik daukaguna

Amatasuna

Erditze-egunean ondo ikasten doguna

Amatasuna

Une orreixetan amarengandik datorkiguna

Amatasuna

Gizonentzat zoriotzarrez ezezaguna

Amatasuna

Bizitza osoan betetzen gaituna

UMETASUNA

Umetasuna

Erditu-ostean ikusten doguna

Umetasuna

Gure aurrean dagonean biotzean ikutzen gaituna

Umetasuna

Egun larrietan danok bear doguna

Umetasuna

Sarritan aintzat artzen ez dakiguna

Umetasuna

Bat-batean desagertzen jakuna

Umetasuna

Galtzen dogunean. arima goibeltzen dauskuna.

PALMI 'K